



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko martxoaren 31

40. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-25/CCOI-00003. Nasuvinsaren eta Estudios Melitón SL-ren arteko errentamendu-kontratuari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-25/CCOI-00003. Nasuvinsaren eta Estudios Melitón SL-ren arteko errentamendu-kontratuari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nasuvinsaren eta Estudios Melitón SL-ren arteko errentamendu-kontratuari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**AURKIBIDEA***ORRIALDEA*

I. SARRERA.....	4
II. HELBURUAK ETA NORAINOKOA .....	4
III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK.....	5
IV. NASUVINSAREN ERANTZUKIZUNA .....	7
V. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	7
GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK.....	8
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.....	17
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA...	18

## I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko martxoaren 30eko bilkuran, eta Navarra Suma talde parlamentarioaren eskariari jarraituz, erabaki zuen honako honi buruzko fiskalizazio-txostena eskatuko ziola Kontuen Ganberari: *“Lekarozen zinemagintza-estudioen eta kultur kudeaketarako instalazioak eraikitze aldera NASUVINSA enpresa publikoak eta ESTUDIOS MELITÓN, SL enpresak sinatutako kontratua eta kudeaketa”*.

Kontuen Ganberak 2024ko fiskalizazio-programan sartu zuen eskari hori, parlamentu-eskaria egin zen unean ebazpen judizialaren zain zegoelako demanda bat, Navarra de Suelo y Vivienda, SA (aurrerantzean, Nasuvinsa) sozietate publikoak kontratuaren ez-betetzeagatik Estudios Melitón SL (aurrerantzean, Melitón) enpresari jarritakoa.

Auditoretza-teknikari batez eta auditore batez osatutako talde batek egin zuen landa-lana, hiru hilabeteko epean, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

Txosteneko diru-kopuruak –dagokien BEZik gabe ageri dira beti– biribildu egin dira, ez dadin zentimorik ager. Datuek balio zehatz bakoitzaren biribildura adierazten dute, eta ez, ordea, biribildutako datuen batura.

Lan honen emaitzak helarazi zitzaizkien Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Nasuvinsako egungo eta aurreko zuzendari kudeatzaileari eta Melitóneko bazkide ohi bati, alegazioak aurkez zitzaizkien, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Epea amaituta, alegazioak aurkeztu ditu Melitóneko bazkide ohi batek. Alegazioak, behin aztertuta, txostenean jaso dira Ganbera honen erantzunarekin batera, eta horrenbestez, txostena behin betiko gisa ematen da.

Eskerrak ematen dizkiegu Nasuvinsako langileei, Sociedad de Desarrollo de Navarra SL sozietatekoei (aurrerantzean, Sodenak), Nafarroako Enpresa Korporazio Publikokoei (aurrerantzean, NEKP) eta Melitón enpresakoei, lan hau egitean emandako laguntzagatik.

## II. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Parlamentuaren eskariari jarraituz, Kontuen Ganberak auditoretza operatibo bat egin du, aztertzekoa Nasuvinsaren eta Melitónen arteko errentamendu-kontratua sinatu aurreko jarduketak, haren sinatzea eta kudeaketa. Zehazki, gure lanak honako alderdi hauei erreparatu die bereziki:

- Kontratua sinatu aurretik Nasuvinsak egindako jarduketak.
- Nasuvinsaren eta Melitónen arteko kontratuaren ezaugarriak.
- Errentamendu-kontratuaren xede diren instalazioak eraiki izana horietarako obraren adjudikazioa berraztertu gabe.
- Kontratuaren exekuzioa.
- Sodenak Melitóni emandako mailegua.
- NEKPk Nasuvinsari egindako kapital-ekarpena, errentamendu-kontratuaren xede diren instalazioen eraikuntza finantzatzekoa.
- Melitónek jasotako funts publikoak; zehazki, laguntza gisa jasotakoak eta ikastaroak, lantegiak eta abar antolatzeagatik kontratu gisa jasotakoak.

Aipatutakoez gain, kontratua sinatzearen eta exekutatzaren osteko zenbait gertakari ere aztertu ditugu, Nasuvinsak Melitóni jarritako demandarekin lotura dutenak. Hain zuzen ere, errentak ez ordaintzeagatik eta 2024ko urrian instalazioen kontratua beste enpresa batekin sinatzeagatik jarri zion demanda.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoak 2018-2024 aldia hartzen du. Kontuan hartuta aipatutako kontratuak osatua dela fiskalizazioaren norainoko objektiboa, honako informazio hau aztertu dugu:

- Nasuvinsaren eta Melitónen arteko kontratuari buruzko dokumentazioa. Sodenak Melitóni emandako maileguari buruzko dokumentazioa.

- NEKPk Nasuvinsari egindako kapital-ekarpenari buruzko dokumentazioa.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontu-gastuak; Melitón izan zen horien hartzekodun fiskalizazioaren xede den denbora-tartean.
- Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren arabera Melitónek jasotako laguntzak.
- Nasuvinsaren administrazio-kontseiluaren aktak.
- Aplikatzekoa den arau-esparrua.

### III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Nasuvinsak eta Melitónek 2018ko maiatzean sinatutako kontratua fiskalizatu du Kontuen Ganberak. Kontratu horren xedea zen Nasuvinsaren jabetzakoa den eta Lekarozen dagoen lurzati batean eraiki asmo ziren instalazio batzuk errentan ematea, zinemagintza-estudio batzuk kudeatzearen eta esparru horretako profesional kualifikatuak prestatzeko eskola bat sortzearen. Kontratuaren iraupena 20 urtekoa zen, instalazio horien eraikuntza bukatzen zenetik aurrera.

Fiskalizazioa eginda, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Melitónek Sodenari aurkeztutako dokumentazioaren arabera –zeina 60.000 euroko mailegu bat eskatzeko aurkeztu baitzion–, proiektua 2016an sortu zen, Nafarroan sektore horrentzat egotea espero zen desgrabazio fiskalak ekarritako baldintza mesedegarriak zirela-eta, Garapen Ekonomikorako Departamentuko Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren eskutik. Azkenean, proposamen hau Nasuvinsak gauzatu zuen; hots, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren mendekoa den enpresa horrek.

- Egia bada ere kontratuaren izaeragatik legez ez zela beharrezkoa, Nasuvinsak ez zuen negozio-azterketarik egin hitzeman zuen inbertsioa egin baino lehen. Negozio-azterketa horretan zenbatetsiko ziren, besteak beste, behar zen inbertsioa eta horren finantzaketa, espero zen errentagarritasuna, arrisku potentzialak, inpaktu ekonomiko eta soziala, eta operazioa Estatuko laguntzat jotzeko aukera.

Beste alde batetik, eta nahiz eta hauek ere ez ziren fiskalizazioaren xede den kontratua formalizatu ahal izateko legezko eskakizun, ez da jasota gelditu Nasuvinsak negozio-aukera hori beste enpresa batzuei kontsultatu zienik, ez eta azterketa ekonomiko-finantzariarik egin zuenik ere Melitónek kontratutik sortzen ziren betebeharreri aurre egiteko zuen ahalmenari eta kaudimenari buruz –enpresa hori 2018ko otsailean eratu zen, kontratua sinatu baino hiru hilabete lehenago–.

- Nasuvinsako kudeatzaileak sinatu zuen Melitónekiko kontratua, sozietatearen estatutuek eta administrazio-kontseiluak esleitutako ahalmenen poderioz, kontuan hartu gabe sozietate horren zerbitzu juridikoez egindako ohartarazpenak, hala nola zerikusia zutenak lehenespenez eskuratzeko eskubideari uko egitearen erregulazioarekin, alokairua eraikuntzaren amaierako kostura egokitzearekin eta Nasuvinsak proiektua lizitatzeko derrigortasunarekin.

- Kontratuan aurreikusten zen Nasuvinsak 980.000 euroko gastua egingen zuela instalazioen eraikuntzan, kontuan hartu gabe obra-proiektuaren eta -zuzendaritzaren gastua –zenbatespenen arabera 59.900 eurokoa izanen zena–, hori Melitónek hartuko baitzuen bere gain, proiektua kontratatzea eta kudeatzea enpresa horren esku utzi zirenez gero. Kontratu publikoei buruzko Foru Legearen arabera, proiektua Nasuvinsak lizitatu eta adjudikatu behar izanen zuen, zerbitzu juridikoez ohartarazi zuten bezala.

- 2022an, kontratuan adostutako eta gerora COVID-19aren pandemiagatik luzatutako gabealdien ostean, Melitónek ez zuen errentarik ordaindu, eta Nasuvinsak zorraren zenbatekoa erreklamatu zion uztailan. 2022ko abuztuan, Melitónek ez zuenez ordaindu, kontratua suntsiarazi egin zen, eta Nasuvinsak urte horretako irailean berreskuratu zituen instalazioak. Gerora, 2024ko urrian, Nasuvinsak instalazio horiek zinemagintza-sektoreko beste enpresa bati alokatu zizkion (erosteko aukerarekin).

- Kontratua sinatu aurretik, oro har, gainerako autonomia-erkidegoetan baino baldintza fiskal hobeak zeuden Nafarroan. Alabaina, kontratu-sinatzearen eta COVID-19aren pandemiaren ostean, hobetu egin ziren kenkariak Estatuko gainerako lekuetan; eta foru-araudian, berriz, ez zen aldaketarik egin.

- Honako hauek dira aztertutako operazioaren zifra esanguratsuenak:

Gertakaria	Zenbatekoa
Nasuvinsak egindako inbertsioa	1,28 milioi
Kontratuan hasiera batean finkatutako hileroko errenta	2.700 euro/hil
Sodenak Melitóni emandako mailegua	60.000 euro
Lekarozeko instalazioak eta Arakiletik Lekunberrira bitarteko gas-kanala finantzatze aldera NEKPk Nasuvinsari egindako kapital-ekarpena	2,50 milioi
Melitónen errenten ez-ordaintzeak, kontratua suntsiarazi artekoak	16.038 euro
Melitóni emandako maileguaren ez-ordaintzeagatik Sodenak izandako galerak	37.500 euro
Nasuvinsaren aldeko epai judiziala, errenten ez-ordaintzeengatik eta etorkizuneko errenta ez-ordainduen eragindako galerengatik. Epai hori ezin izan zen exekutatu, hartzekodunen konkurtsoa amaituta zegoelako eta Melitón iraungita zegoelako.	565.605 euro
Melitónek Nafarroagandik eta Estatuagandik jasotako funts publikoak; zehazki, laguntza gisa jasotakoak edo ikastaroak, lantegiak eta abar antolatzeagatik jasotakoak.	90.137 euro

**Laburbilduz**, Nasuvinsak errentamendu-kontratu bat sinatu zuen Melitónek, eta instalazio batzuk eraikitze konpromisoa hartu. Operazioa gauzatu zen aurrez inbertsio horren negozio-analisirik egin gabe, kontratuan kontuan hartu gabe zerbitzu juridikoen ohar guztiak, eta analisirik egin gabe kontratutik sortutako betebeharrak ekonomikoei Melitónek aurre egiteko zuen ahalmenari eta kaudimenari buruz. Kontratuaren izaera dela-eta eskakizun horiek legez exijitzekoak ez baziren ere, Kontuen Ganbera honen iritzia da funts publikoen kudeaketa on batek berezkoa lukeela horiek betetzea; eta gainera, klausula gehigarriren bat sartu izan beharko zela kontratuan, funts horiek galtzearen arriskua minimizatzeke.

Operazio horren ondorioz, gainera, NEKPk kapital-ekarpena egin zion Nasuvinsari, aipatutako instalazioen eraikuntza finantzatzeko, eta Sodenak mailegu bat eman zion Melitóni bere jarduerak finantzatzeko.

Melitónek ez zuen finkatutako errenta ordaindu inoiz; baliteke COVID-19aren pandemiak bere jardueran eragin izana, bai eta beste autonomia-erkidego batzuekiko abantaila galdu izanak ere. Hori horrela, kontratua suntsiarazi egin zen, eta instalazioak Nasuvinsaren eskuetara itzuli ziren, zeinak berriz alokatu zituen 2024ko urrian.

Gure lanaren konklusioak aintzat harturik, *honako hau gomendatzen diogu Nasuvinsari*:

- *Diseina dezala jarduera-protokolo bat horrelako operazioetarako, honako alderdi hauek aintzat hartuko dituen besteak beste: inbertsioaren arrisku eta onura enpresariale, ekonomikoei eta sozialei buruzko aurretiko negozio-analisia; inplikaturako hautagai posibleen bideragarritasunaren eta Estatuko laguntza posiblearen baldintzen ebaluazioa; eta instrumentazio juridiko egoki bat bermatzeko beharrezko barne-kontrol mekanismoak.*

- *Behar besteko bermeak ezartzea fiskalizatuaren antzeko operazioak arautzen dituzten errentamendu-kontratuetan, funts publikoen ahalik eta babes handiena ziurtatzeko.*

- *Egin asmo dituen eraikuntzen obra-proiektuak lizitatzea aplikatzeko den kontratazio publikoko araudiari jarraituz.*

#### **IV. NASUVINSAREN ERANTZUKIZUNA**

Nasuvinsaren Administrazio Kontseiluak esleitutako ahalmenen arabera, sozietate horren kudeatzaileari dagokio negozio, kontratu, egintza eta operazio guztietan haren ordezkari izatea; eta gainera, egoki irizten dituen pertsoneri edonolako ondasun higiezinak alokatzen ahal dizkie, berak libreki adostutako baldintzetan.

Nasuvinsaren Administrazio Kontseiluak eta kudeatzaileak marzatasun egokiz bete behar dituzte beren eginkizunak, sozietatearen zuzendaritza eta kontrol egokirako hartu beharreko neurriak hartuz. Enpresa-diskrezionalitatearen arabera erabaki estrategikoen eta negozio-erabakien esparruan, behar besteko informazioa izanik jardun beharko dute, eta erabaki-prozedura egoki bati jarraituz.

Aipatutako enpresaren gobernu- eta zuzendaritza-organoek bermatu behar dute, halaber, ezen urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin. Era berean, haien erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatzekoak ezen egindako jarduera lege-urraketarik gabekoa dela.

#### **V. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA**

Gure erantzukizuna da zenbait konklusio adieraztea, oinarri harturik Nasuvinsak eta Melitónek 2018ko maiatzean sinatutako errentamendu-kontratua izenpetzeari eta kudeatzeari buruz egin dugun fiskalizazioan.

Horretarako, Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoen fiskalizazio-printzipio orokorreari jarraituz egin dugu aipatutako fiskalizazioa; hau da, ISSAI-ES direlakoetan zehaztutakoei jarraituz. Funtsean, honako hauek aplikatu ditugu: “Auditoretza operatiboaren oinarritzko printzipioak” izeneko ISSAI-ES 300 delakoan eta “Legedi-betetzearen fiskalizazioaren oinarritzko printzipioak” izeneko ISSAI-ES 400 delakoan. Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, eta fiskalizazioaren plangintza eta betearazpena egin ditzagula honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea aztertutako kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateari buruz.

Fiskalizazio bat egiteko, aplikatu beharrekoak dira ateratako konklusioei oinarri ematen dien auditoretza-ebidentzia lortzekoak diren prozedurak.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria jasotzen du ateratako konklusioei funtsa emateko.

Txosten hau jaulkitzen da bere arduradun Karen Moreno Orduña auditoreak proposatuta, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

## GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Jarraian deskribatuko ditugu gure zereginean azaleratu diren eta gure txostenaren konklusio-atalean adierazi dena osatzen duten zenbait afera.

2018ko maiatzaren 31n, Nasuvinsak errentamendu-kontratu bat sinatu zuen Melitónekin, zeinaren xedea baitzen Nasuvinsaren jabetzakoa den eta Lekarozen dagoen lurzati batean eraiki asmo ziren instalazio batzuk errentan ematea, zinemagintza-estudio profesional batzuk kudeatzeko eta esparru horretako profesional kualifikatuak prestatzeko eskola bat sortzeko.

### Kontratua sinatu aurretiko jarduketak

Melitón 2018ko otsailean eratu zen, zinemagintzarekin, bideogintzarekin, telebista-programekin, soinu-grabaketarekin eta musika-edizioarekin lotutako jardueren kategorian eta platoen alokairuaren eta zinemarekin, musikarekin eta ikus-entzunezkoekin lotutako produktu askotarikoen alokairuaren kategorian sailkatutako enpresa gisa.

Kontratua sinatu aurretiko dokumentazioa, Ganbera honi helarazia, aztertuta, honako gertakari hauek ondorioztatzen dira –ordena kronologikoz azalduta–:

- Melitónen ordezkariak kontratuaren zirriborro bat igorri zuen, aurrez helarazi zitzaion txantilo baten arabera<sup>1</sup>. Zirriborro hori igorri zien, besteak beste, Nasuvinsako zerbitzu juridikoei eta kudeatzaileari eta une hartan Garapen Ekonomikorako Departamentuko Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusi zenari, berrius zezaten eta ahalik eta denbora laburrenean sinatu ahal izateko.

- Nasuvinsako zerbitzu juridikoekin lotutako honako gertakari hauek daude jasota:

a) Honakoei buruzko zalantzak azaldu zizkieten enpresako beste teknikari bati: plano falta, lurzatiaren errentamenduaren m<sup>2</sup>-ko prezioa, aurreikusitako eraikuntzako m<sup>2</sup>-aren kostu handia eta obraren proiektu teknikoa egiteko arduraren Melitónen gain egotea eta ez izatea lizitatua. Teknikari horren konklusioa izan zen kontratua *“nabarmen hobegarria”* zela.

b) Nasuvinsako kudeatzaileari eta sozietateko beste teknikari bati adierazi zieten kontratuaren zirriborroaren idazketan lehenago parte hartu izan nahiko luketela, eta ez aurrez finkatutako zerbaiten gainean. Aurreko puntuan aipatutako aferei buruz ohartarazten zuten, eta kontratuaren *“zirriborroaren alderdi delikatu”*-tzat jotzen zituzten.

c) Enpresako kudeatzaileari eta beste teknikari bati igorri zieten kontratua Melitóni bidaltzeko, eta adierazi zuten proposamena hasierako zirriborroak baldintzatuta zegoela, eta *“oso bestelakoa”* zela *“Nasuvinsak antzeko egoeretan erabiltzen zituen kontratuekin”* alderatuta.

- Ez dago jasota Nasuvinsak inbertsioaren aurretiko analisirik egin zuenik operazioaren arrisku potentziala eta inpaktua ebaluatzeko, ez proposamena gauzatzeko aukerari buruz beste enpresa batzuei kontsultarik egin zienik, ez eta analisi edo azterketa ekonomiko-finantzariorik egin zuenik ere kontratutik sortutako betebeharre aurre egiteko Melitónek zuen ahalmen ekonomikoari buruz, nahiz eta enpresa 2018ko otsailean eratua izan, kontratua sinatu baino hiru hilabete lehenago.

- Ez dago jasota Nasuvinsak analisirik egin zuenik operazio hori Estatu-laguntzatza joa izateko aukerari buruz.

- Kontratua sinatu aurretiko Nasuvinsaren Administrazio Kontseiluaren aktetan ez da kontratua aipatzen. 2018ko uztailean, aktan jasotakoaren arabera, Administrazio Kontseiluari jakinarazi zitzaion kontratua sinatu zela.

<sup>1</sup> Ez da jasota gelditu nork igorri zion hasierako txantilo hori Melitóni.

### **Errentamendu-kontratuaren ezaugarriak**

2018ko maiatzaren 31n sinatutako errentamendu-kontratuak honako oinarritzko ezaugarri hauek ditu:

- Hiri-errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen mende dago, hori baitzaie aplikatzekoa etxebizitza-erabilera nahiz etxebizitzaz bestelako erabilera emanen zaien hiri-finken errentamenduei.

- Nasuvinsako kudeatzaileak hori egiteko ahalmen osoa zuen, Nasuvinsak berak 2015eko urrian egiletsi zuen eskrituraren arabera, zeinaren bitartez kargutik kentzea, zuzendari kudeatzailearen izendapena eta ahalordetzea egiten baitzen.

- Nasuvinsako zerbitzu juridikoen iradokizunetakoren bat jasotzen du, hala nola fidantza bat ezartzearena, udal kontserbazio-entitatearen kuotei erreferentzia egitearena, bai eta instalazio-entrega Melitónnek proiektua entregatzen zuen dataren arabera egiteko konpromisoa ere.

Zerbitzu juridikoen mahaigaineratutako beste zenbait afera ez ziren aintzat hartuak izan: lehenespenez eskuratzeko eskubideari uko egitearen nondik norakoak arautzea, alokairua eraikuntzaren amaierako kostura egokitzea, eta Nasuvinsak proiektua lizitatzea, besteak beste.

- Kontratuan esaten da Nasuvinsak konpromisoa hartzen duela, Melitónen eskariari jarraituz, Melitónnek aurkeztutako proiektuaren arabera Lekarozen instalazio batzuk eraikitzeko; instalazio horiek jarduera kulturalen sustapenera bideratuko dira, eta zinemagintza-filmazioetara bereziki. Eraikuntza horren kostu zenbatetsia 980.000 eurokoa da, eta exekuzio-epea, zazpi hilabetekoa.

- Instalazioak entregatzeko epemuga 2019ko urtarrilaren 31 da, eta baldintza gisa ezarrita dago Melitónnek proiektu ikus-onetsia 2018ko ekainaren 15a baino lehen aurkeztea, Nasuvinsak epean lizitatu ahal izateko horren exekuzioa.

- Laugarren estipulazioak honako hau zioen, besteak beste:

- a) Melitónnek 2.700 euroko hileroko errenta ordainduko zion Nasuvinsari, Melitónnek adierazitako kontuan kargua eginez. Errenta hori urtero berrikusiko zen, Nafarroako KPIk eguneraketa bakoitzaren aurreko azken 12 hiletan izandako aldakuntzaren arabera.

- b) Hasieran Melitónnek hartuko zituen bere gain proiektuaren zerbitzu-sari teknikoaren eta obra-zuzendaritzaren kostuak, 59.900 euroan zenbatetsiak. Kostu horiek lehenengo errentetatik kenduko ziren, zenbateko osoa konpentsatu arte; hau da, hileroko errentaren ordainketan 22 hileko gabealdia izanen zen kontratua indarrean sartzen zenetik aurrera.

- Melitónnek eratu beharreko fidantza errenta adostuaren bi hilerokoren parekoa zen (5.400 euro), zenbateko hori exijitzen baitu aplikatzekoa den araudiak. Ez dago jasota bestelako abal eta/edo bermerik.

- Instalazioen errentamendu-kontratuaren iraupena 20 urtekoa izanen zen, instalazioak eraikitzeko lanak amaitzen zirenetik aurrera zenbatuta.

### **Sodenak Melitóni emandako mailegua**

2018ko urrian, 60.000 euroko mailegu bat jasotzeko eskaria aurkeztu zion Melitónnek Sodenari. Hori horrela, zegoen azterketa egin ostean, Sodenako lantalde teknikoak finantza-sostengurako proposamen bat aurkeztu zion Zuzendaritza Batzordeari, eta honako alderdi hauek aipatzen ziren hor:

- Melitón 2016an hasi zen proiektua lantzen, jakindakoan jarduera horiei Nafarroan zegoen zerga-arinketa ehuneko 35ekoa izaten ahal zela; zifra hori nabarmen handiagoa da Estatuko gainerako lekuetan aplikatzen zena baino, Kanaria uharteak alde batera utzita.

- Proiektuaren sustatzaile ziren bazkideei egokia iruditu zitzaizkien Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskutik gauzatzea proiektua, eta, zehazki, Garapen Ekonomikorako Departamentuko Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren eskutik, hark sormen-industriaren alde egiten zuen apustuagatik, zeina Espezializazio Adimentsuaren Estrategia-Nafarroa S3 estrategian jasota baitzegoen. Horri dagokionez, ganbera honek azpimarratu nahi du apustu hori "Europa 2020 Estrategia"-ren parte zela, zeina Europako

Batzordeak proposatu baitzuen garapen ekonomikoko eredu jakin bat bultzatzeko; eredu bat, hain zuzen, eskualde bakoitzak lehiakortasun-abantaila handiak zituen arlo ekonomikoetan balia bideak kontzentratzea zekarrena.

- Adierazten zen sustatzaileak Nasuvinsarekin bildu zirela gero, eta, instalazioek izan beharko zituzten ezaugarriak eta baldintzak adostu ostean, fiskalizazio honen xede den errentamendu-kontratua sinatu zutela.

Ez dago jasota zergatik ez zuen proposamena Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak gauzatu, eta zergatik igorri zitzaion gero Nasuvinsari onar zezan, kontuan hartuta enpresa publiko hori ez dela departamentu horren mendekoa.

- Aipatzen zen ASPACE-Garun Paralisia duten Pertsonen Laguntzeko Elkartearekin adostu zela Lekarozeko Hizkuntza-murgiltze Zentroaren<sup>2</sup> (CIL) eraikinaren eta Baztan Gazteen Aterpetxearen eraikinaren erabilera partekatua egiten zela, erabilgarri zeudenean betiere. Bi alderdiek sinatutako lankidetzak-akordioan zehaztuta zeuden eman beharreko zerbitzuak: serieak, filmak eta publizitatea ekoizteko azkenean Lekarozera joaten ziren langileei ostaturik eta mantenua ematea, hain zuzen ere.

- Enpresa osatzen zuen lantaldearekin hitzordua egin eta besteak beste zinemagintza-merkatuaren datuak nahiz finantzen egoera-orrien aurreikuspenak jakinarazi ostean, 60.000 euroko partaidetza-mailegu kapitalizagarria eskatzen zen Melitónentzat. Mailegua eman aurretik, Melitónek adierazten zuen bere bazkideek 99.000 euro jarriko zituztela, eta gehitzen zuen finantza-erakunde batengandik 120.000 euroko mailegu bat lortzeko asmoa zuela.

120.000 euroko mailegu horri dagokionez, 2018ko urriaren 26an 60.000 euroko abal bat eratu zuen Elkargik maileguaren berme gisa. Horri dagokionez, jakinarazten dugu Sodenak eta Elkargik hitzarmen bat dutela, Elkargik egiten dituen operazioetan ehuneko bosteko berrabala emateko. Hori horrela, Elkargik egindako operazioaren ehuneko bostaren berrabala eman zuen Sodenak, 3.000 euroko zenbatekoz, hitzarmen horretan ezarritakoari jarraituz.

- Aurkeztutako proposamena aztertu zuen Sodenak, eta mailegua ematea onetsi zuen; hori poliza batean jaso zen 2018ko abenduaren 4an, honako ezaugarri hauekin:

- a) Maileguaren printzipala 60.000 eurokoa izan zen, eta urtebeteko gabealdia ezarri zen, bai eta sei hilean behingo 7.500 euroko likidazioen egutegi bat ere, 2020ko urtarrilaren 1etik 2023ko uztailaren 1era bitartekoa.

- b) Honako hauek jasotzen zituen: negozio-planari buruzko bost eranskin, kapitalizazioaren osteko klausula aplikagarriak, parte-hartzaileen titulartasuna, 2018ko iraileko finantzen egoera-orriak, eta bazkideak kide egiteko dokumentua.

## **Instalazioen eraikuntza**

Instalazioen eraikuntza gauzatu zen enkargatutako proiektuari jarraituz, zeina Melitónek ordaindu baitzuen hasieran.

Nasuvinsak bi kontratu adjudikatu zituen prozedura sinplifikatu baten bidez, instalazio horien solairu eta estalkiei eta 0 kotari buruzkoak, 2018ko uztailaren eta azaroaren, guztira 362.000 euroko zenbatekoz.

Beranduago, 2019ko otsailaren, instalazioak eraikitzeko obrak adjudikatu zituen Nasuvinsak prozedura ireki baten bidez, 727.000 euroko zenbatekoz.

2019ko azaroan instalazioak bukatu ostean, 1,28 milioi daude inbentariatuta Nasuvinsan, baina zenbateko horretan ez daude sartuta ez lursailaren balioa (55.148 euro) ez proiektu-idazketaren eta obra-zuzendaritzaren gastuak.

<sup>2</sup> 2022-2023 ikasturtetik aurrera, Ikaskuntza Integralerako Nafarroako Zentroan (CNAI) sartuta dago Lekarozeko CILa, ikastetxe publiko eta pribatuak ikasleen English Week delakoaren egoitza gisa; beraz, horren erabilgarritasuna nabarmen murriztu da.

Fakturan jasota dagoenaren arabera, 60.430 eurokoak izan ziren proiektu-idazketaren eta obrazuzendaritzaren ondoriozko gastuak. Nasuvinsak ez zuen kontabilitate-idazpenik egin, gastu hori ibilgetuaren parte gisa aktibatzen zuenik.

### **Instalazioak eraiki osteko gertakariak**

Jarraian, instalazioak eraiki ostean izandako gertakari garrantzitsuenen laburpena egingen dugu, ordena kronologikoan:

- Nasuvinsak 2019ko azaroaren 7an entregatu zizkion instalazioak Melitóni. Entrega-aktan esaten zen alokairua 2019ko abenduaren 1ean hasten zela eta Melitónek ordaindua zuela aurreikusitako fidantza –5.400 euro–; alabaina, ez zuen benetan ordaindu 2021eko ekainera arte.

Instalazioen entrega-data kontuan hartuta, kontratuan aurreikusitako gabealdia 2021eko irailean bukatuko zen, gogoan izanda Melitónek proiektuaren kostuari aurre egin ziola –59.900 euroan zenbatetsia–.

- 2019ko azaroaren 20an, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko Industria Sustatzeko Zerbitzuaren zuzendari nagusiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuari proposatu zion NEKPren kapitala 818.000 euroan handitzea. Xedea zen NEKPk funtsak bideratzea Nasuvinsara, Lekarozeko instalazioen eraikuntza finantzatzeko, beste jarduketa batzuen artean.

Ondare Zerbitzuak ez zuen handitze hori baimendu, baina ez dago jasota erabaki horren arrazoirik. Horri dagokionez, esan behar da Nasuvinsa ez zegoela Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren mende, une horretan Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari atxikita baitzegoen.

- 2020ko martxoaren 30ean, maileguaren lehenengo likidazioa eta interesak ordaindu ostean, kapital-ordainketen egutegia aldatzea onartu zion Sodenak Melitóni, 2021eko urtarrilera arte atzeraturik, baina interesak data aurreikusietan ordaintzen jarraitu behar zuten.

- 2020ko abenduan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aurreko urtean ukatu egin zuenez NEKPren kapitala handitzea, sozietateak erabaki zuen 2,5 milioi emanen zizkiola Nasuvinsari, Lekarozeko instalazioen eta Arakiletik Lekunberrirako gas-kanalizazioaren eraikuntza finantzatzeko.

- 2021eko ekainean, Melitónek errentaren ordainketaren gabealdi berezi bat, 2021eko abenduaren 31ra bitartekoa, eskatu zion Nasuvinsari posta elektronikoz, jarduera gauzatzeko zailtasunak izaten ari baitzen COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

- 2021eko uztailan, Nasuvinsak eta Melitónek errentamendu-kontratuaren gehigarri bat sinatu zuten, eta eskatutako aparteko gabealdia onetsi zen horren bidez.

Kontratuaren indarraldia ez zen aldatu; beraz, onespren horrek esan nahi zuen Nasuvinsak jasoko zuen guztizko zenbatekoa txikiagoa izanen zela hasieran aurreikusitakoa baino –lau hilerokoren parekoa (10.692 euro)–.

- Jasota dagoenez, 2021eko azaroan Nasuvinsako kudeatzaileak komunikazio bat igorri zion Melitóni, zeinaren bidez onetsi egiten baitzen errentariak eskatutako beste gabealdi bat, 2022ko abenduaren 31ra bitartekoa; betiere, Melitónek 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen lortzen bazuen pabiloia irekitzeko baimena Baztango Udalarengandik.

Baina ez zuenez lortu aipatutako baimen hori<sup>3</sup>, Nasuvinsak ez zuen aplikatu aurreko gabealdia, eta errenten sortzapena 2022ko urtarrilean hasi zen.

- 2021eko azaroaren 20an –une horretara arte, Melitónek behar bezala egin zien aurre printzipalaren eta zegozkion interesen ordainketari–, mailegua ordaintzeko egutegi berri bat onetsi zuen Sodenak, beste gabealdi bat onartu zion Melitóni, eta amaierako muga-eguna atzeratu zuen. Aldaketa horrekin, Melitón 2023ko urtarriletik aurrera hasiko zen maileguaren printzipala itzultzen.

<sup>3</sup> Melitónek Baztango Udalari aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpen baten arabera gauzatu zuen bere jarduera; horrek modua ematen zion araudiari jarraituz aritzeko.

- 2022ko uztailaren 4an, Nasuvinsak burofax bat igorri zion Melitóni, kobratzeko zeuden errentei zegozkien 16.038 euroak erreklamatzeko –sei hilerokoren zenbatekoa–, eta adierazi zuen ezen ordainketa ez bazen egiten uztailaren 15a baino lehen, errentamendu-kontratua suntsiarazi egingen zela.

Burofaxearen, fakturak ere gehitu ziren, Melitónek ordaindu zitzaizkien. Horri buruz adierazten dugu Nasuvinsak ez zituela ordainagiri horiek hilerokoz zordundu, nahiz eta kontratuan errentak kobratzeko ezarritako prozedura izan kontratu-sinatze unean errentariak emandako kontu batean helbideratzea ordainagiriak.

- 2022ko uztailaren 28an, Sodenak mezu elektronikoa bat igorri zion Melitóni, interes-ordainketa erreklamatzeko.

Melitónek harremanetan jartzeko saiakera horiek berriro egin ziren 2022ko uztailetik abendura bitarte eta 2023ko urtarriletik apirilera bitarte.

- 2022ko abuztuaren 19an, Melitónek ez zionez erreklamaturako errenta ordaindu Nasuvinsari, kontratua automatikoki suntsiarazi zen hamabigarren estipulazioari jarraituz, eta Melitóni eskatu zitzaion instalazioak Nasuvinsaren esku jar zitzala 2022ko irailaren 15a baino lehen.

- 2022ko irailaren 16an, Melitónek entregatu egin zizkion instalazioak Nasuvinsari, horien azterketa egin ostean, eta azterketa horretatik ondoriozta daiteke egon izana zela jarduerarik instalazioetan.

Hain zuzen ere, Melitónek bazkide batek esan digunez, enpresaren jardura izan zen 2019, 2020 eta 2021ean zenbait prestakuntza egitea, bai eta zenbait filmen eta entretenimendu-programaren filmaketa ere.

- 2022ko azaroaren 1ean, 37.500 euroko kopuru ordaindugabearen kontabilizatu zuen Sodenak Melitóntzako kredituaren narriadura.

- 2023ko otsailaren 27an, Nasuvinsak salaketa jarri zuen Melitónen aurka, eta zorra erreklamatu zion, honako zenbateko honekin: 22.640 euro, 2022ko urtarriletik uztailera bitarteko errentengatik, gehi 547.965 euroko kalte-ordaina 2022ko urritik kontratu-amaieraren data aurreikusira (2039ko azaroa) bitarte kobratuko ez zituen etorkizuneko errentengatik; 565.605 euro guztira, jarritako fidantza kenduta, zeina 5.000 eurokoa izan zela adierazi baitzen okerki.

Horri buruz esan behar dugu kalte-ordain gisa erreklamaturako zenbatekoaren barruan abuztuko eta iraileko hilerokoak ere sartu beharko lirakeela, 5.346 euroko guztizko zenbatekoz. Benetan jarritako fidantza kontuan hartuta, 570.551 euroko zenbatekoa erreklamatu behar izanen zen.

- 2023ko apirilaren 24an, Melitónen eskaeraren ostean, Iruñeko Merkataritza arloko 2. Epaitegiak masarik gabeko konkurtsoa deklaratzeko autoa eman zuen, 139.818 euroko pasiboarekin.

Autoan xedatzen zen “dei egin” ziezaiela gutxienez pasibo horren ehuneko bost ordezkatzeko zuten hartzekodunei, gertakari hori argitaratu eta 15 eguneko gehieneko epean konkurtso-administratzaile baten izendapena eskatu ahal izan zezaten; konkurtso-administratzaile horrek txosten arrazoitua eta dokumentatua aurkeztuko luke Konkurtso Legearen testu bategina onesten duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. ter artikuluan ezarritako alderdiei buruz. Hauek dira artikuluko horretan aipatzen diren alderdiak:

1. *Nahikoa zantzu badago adierazten duena zordunak masa aktiborako kaltegarriak diren egintzak egin dituela, horiek desegingarriak badira lege honetan ezarritakoari jarraituz.*

2. *Baldin nahikoa zantzu badago erantzukizunerako akzio soziala baliatzeko, dela konkurtsopeko pertsona juridikoaren zuzenbidezko nahiz egitatezko administratzaileen edo likidatzaileen aurka, dela pertsona juridiko administratzaileak pertsona juridikoaren administrari-karguaren berezko eginkizunak etengabe gauzatzeko izendatutako pertsona naturalaren aurka, eta sozietatearen maila goreneko zuzendaritzako ahalmenak esleituak dituen pertsonaren aurka, horren izena edozein izanda ere, kontseiluaren ahalmenak ez daudenean etengabe eskuordetuta kontseilari delegatu batengan edo batzuegan.*

3. *Baldin nahikoa zantzu badago konkurtsoa erruzkotzat kalifikatua izan ahal izatearena.*

- 2023ko ekainaren 26an, Iruñeko Merkataritza arloko 2. Epaitegiak auto bat eman zuen, zeinaren bidez amaitutzat jotzen baitzuen Melitónen hartzekodun-konkurtoa eta sozietatea azkendutzat deklaratu baitzuen.

Horri dagokionez, esan nahi dugu ez zela hartzekodunik aurkeztu konkurtsora, eta ez zela eman lehen aipatutako 37. ter artikuluan aipatzen den txostena.

- Melitónek ez zuenez erantzun, Sodenak aztertu zuen kreditua judizialki erreklamatzeko zuzenbidezko ekintzak abiarazteko aukera, baina kontuan hartuta enpresa hori kaudimengabezia-egoeran zegoela, zalantzan jarri zuten komeni ote zen gastu judizialak sortzea azken batean kreditua ez berreskuratzeko. Azkenik, 2023ko uztailaren 1ean, hurrengo kuotaren epemuga iraganda, Sodenak burofax bat igorri zion Melitóni.

- 2023ko uztailaren 20an, Sodenak jakin zuen Melitónek hartzekodun-konkurtoa aurkeztua zuela, eta enpresarekin harremanetan jartzen ahalegindu zen, baina ez zuen erantzunik jaso.

- 2023ko abenduaren 11n, Elkargik bermatutako operazioak huts egin zuenez, Sodenak 1.244 euro ordaindu zituen bi entitateon arteko hitzarmen indardunari jarraituz.

- 2024ko urtarrilaren 25ean, Iruñeko lehen auzialdiko 2. Epaitegiak epaia eman zuen, eta Melitón zigortu zuen Nasuvinsari 565.605 euro gehi zegozkion berandutze-interesak eta kostuak ordaintzera.

- 2024ko irailaren 9an, Nasuvinsak eskatu zuen exekutatu zedila aipatutako epaia –565.605 euro gehi berandutze-interesak eta kostuak, 150.000 euroan zenbatetsiak–, eta eskatu zuen deklaratu zedila ondasun-enbargoa, zenbateko horiei aurre egiteko.

- 2024ko irailaren 27an, Iruñeko lehen auzialdiko 2. Epaitegiak ukatu egin zuen eskatutako exekuzioa abiaraztea, demandatua zordun gisa ageri baitzen Konkurtsoen Erregistro Publikoan, eta, beraz, ez baitzegokion zorrak bide horretatik erreklamatzeko. Nasuvinsak dioenez, une horretan izan zuen Melitónen konkurto-egoeraren berri.

### Kontratuaren exekuzioarekin lotutako beste zenbait jakingarri

- 2019-2022 aldian<sup>4</sup>, Melitónek 90.137 euro jaso zituen funts publikoetatik, jarraian zehazten den bezala:

Finantzatze-erakundea	Diru-sarreraren jatorria	2019	2020	2021	2022
Kultura Departamentua	Kontratuak	-	-	2.420	1.452
Kultura Departamentua	Dirulaguntza	-	10.000	15.000	-
Garapen Ekonomikorako Departamentua	Kontratuak	6.127	6.000	16.335	-
Nafarroako Enplegu Zerbitzua	Kontratuak	-	6.800	3.267	-
Sodena	Abala	-	-	125	-
<b>Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarengandik jasotako funts publikoak, guztira</b>		<b>6.127</b>	<b>22.800</b>	<b>37.147</b>	<b>1.452</b>
Industria eta Turismo Ministerioa	Abalaren baliokidea den laguntza	-	3.200	1.680	-
Iruñeko Udala	Dirulaguntza	-	5.000	12.731	-
<b>Beste entitate batzuegandik jasotako funts publikoak, guztira</b>		<b>-</b>	<b>8.200</b>	<b>14.411</b>	<b>-</b>
<b>Melitónek jasotako funts publikoak, guztira</b>		<b>6.127</b>	<b>31.000</b>	<b>51.558</b>	<b>1.452</b>

Jasotako dirulaguntzak dira kultura sustatzeko laguntzen deialdi batean eta jarduera kulturalak egiteko beste batean jasotakoak eta finantzaketa lortzeko abal baten baliokide gisa jasotako beste bat.

Kontratuei dagokienez, Melitónek gauzatutako jarduerari buruzkoak dira: ekitaldi bat babestea, lantegiak eta ikastaroak antolatzea, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari eremuak alokatzea, bideo baten errealizazioa, etab.

<sup>4</sup> Jasota dagoenaren arabera, enpresa horri ez zitzaion beste diru-sarrerarik iritsi gero, 2023an eta 2024an.

- 2018an, kontratua sinatu baino lehen, Nafarroan bazegoen sozietateen gaineko zergari aplikagarria zitzaion kenkari fiskal bat, ekoizpen zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan inbertsioak egiteagatikoa, oro har handiagoa zena Estatuko gainerako lurralde-ogasunetan zeudenak baino.

Alabaina, kontratua sinatu eta COVID-19aren pandemia igaro ostean, beste autonomia-erkidego batzuetako kenkariak hobetu egin ziren, eta Nafarroakoak, berriz, tasa berarekin gelditu ziren, hurrengo orrialdeko taulan ikusten den eran (aztertutako urte bakoitzeko abenduaren 31n indarrean zegoen araudiaren arabera).

Urtea	Ezaugarria	Nafarroa	Bizkaia	Gipuzkoa eta Araba	Kanariar Uharteak	Estatuaren gainerakoa
2016	Kuota likidoaren kenkariaren %	% 35	% 30	% 30	% 40 lehenengo milioia, % 38 gainerakoa	% 20 lehenengo milioia, % 18 gainerakoa
	Gastua lurraldean egiteko eskakizuna	% 25	-	-	% 50	% 50
2018	Kuota likidoaren kenkariaren %	% 35	% 30	% 30	% 45 lehenengo milioia, % 40 gainerakoa	% 25 lehenengo milioia, % 20 gainerakoa
	Gastua lurraldean egiteko eskakizuna	% 25	-	-	% 50	% 50
2019	Kuota likidoaren kenkariaren %	% 35	% 30	% 30, % 40 euskaraz bada	% 45 lehenengo milioia, % 40 gainerakoa	% 25 lehenengo milioia, % 20 gainerakoa
	Gastua lurraldean egiteko eskakizuna	% 40	-	% 50	% 50	% 50
2020	Kuota likidoaren kenkariaren %	% 35	% 30	% 30, % 40 euskaraz bada	% 54 lehenengo milioia, % 45 gainerakoa	% 30 lehenengo milioia, % 25 gainerakoa
	Gastua lurraldean egiteko eskakizuna	% 40	-	% 50	% 50	% 50
2021	Kuota likidoaren kenkariaren %	% 35. Lehenengo milioiaren % 40rako tasatutako egoera posibleak	% 30	% 30, % 40 euskaraz bada	% 54 lehenengo milioia, % 45 gainerakoa	% 30 lehenengo milioia, % 25 gainerakoa
	Gastua lurraldean egiteko eskakizuna	% 40. Txikiagoa bada, lurraldeko gastuak/0,40	-	% 50	% 50	% 50
2022	Kuota likidoaren kenkariaren %	% 35. Lehenengo milioiaren % 40rako tasatutako egoera posibleak	% 30	% 35, % 45 euskaraz bada	% 54 lehenengo milioia, % 45 gainerakoa	% 30 lehenengo milioia, % 25 gainerakoa
	Gastua lurraldean egiteko eskakizuna	% 40. Txikiagoa bada, kenkariaren oinarria izanen da lurraldean egindako gastuak /0,4.	-	% 50	% 50	% 50
2023	Kuota likidoaren kenkariaren %	% 35. Lehenengo milioiaren % 40rako tasatutako egoera posibleak	% 60-% 50-% 40-% 35, lurraldean egindako gastuaren arabera. % 10 gehiago, euskaraz bada	% 35, % 45 euskaraz bada	% 54 lehenengo milioia, % 45 gainerakoa	% 30 lehenengo milioia, % 25 gainerakoa
	Gastua lurraldean egitearen eskakizuna	% 40. Txikiagoa bada, lurraldeko gastuak*0,40	% 50- (% 35-% 50), (% 20-% 35), lurraldean egindako gastuaren arabera.	% 50	% 50	% 50
2024	Kuota likidoaren kenkariaren %	% 35. Lehenengo milioiaren % 40rako tasatutako egoera posibleak	% 60-% 50-% 40-% 35, lurraldean egindako gastuaren arabera. % 10 gehiago, euskaraz bada	% 60-% 50, lurraldean egindako gastuaren arabera. % 10 gehiago, euskaraz bada	% 54 lehenengo milioia, % 45 gainerakoa	% 30 lehenengo milioia, % 25 gainerakoa
	Gastua lurraldean egitearen eskakizuna	% 40. Txikiagoa bada, lurraldeko gastuak/0,40	% 50- (% 35-% 50), (% 20-% 35), lurraldean egindako gastuaren arabera.	% 50	% 50	% 50

Horrek esan nahi du balitekeela aztertutako denbora-tartean Nafarroak erakargarritasun fiskala galdu izana, ikus-entzunezkoen sektoreko enpresek beren jarduerak lurralde horretan egitekoa, eta balitekeela horrek Melitónen jardueran eragin izana.

**Kontratua suntsiarazi osteko gertakariak**

- 2024ko urriaren 7an, Nasuvinsak instalazio horien gaineko eros-aukeradun errentamendurako kontratu bat sinatu zuen zinemagintza-sektoreko beste enpresa batekin. Hona hemen kontratu horren zenbait ezaugarri:

a) Iraupena bost urtekoa da, eta urteko luzapenak egiten ahal dira; hileko errenta 4.930 eurokoa da, eta 9.860 euroko fidantza ezarri da (bi hilerokoren zenbatekoa).

b) Kontratua suntsiarazteko arrazoi izanen da elkarren segidako bi hileroko ez ordaintzea.

c) Eros-aukerako eskubidea bost urterako ematen da. Eskubide hori baliatuz gero, errentariak 1,40 milioi ordaindu beharko ditu.

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK****ARGIBIDEAK**

- Ez dakigu garbi zein izan ziren platoon eraikuntzako aurrekontu-desbiderapenerako arrazoiak; alabaina, garrantzitsua da nabarmentzea Estudios Melitón SL enpresak ez zuela inolako erantzukizunik izan kontu horretan, inoiz ez baikenuen aldaketa gehigarri eskatu. Entregan atzerapena jasan genuen, hori bai, eta platoko lehenengo errodahea galtzea eragin zigun horrek.
- Inaugurazioa 2019ko abenduaren 17an egin zen. Hiru hil besterik igaro ez zirenean, 2020ko martxoan, alarma-egoera eta itxialdia deklaratu ziren COVID-19aren pandemiagatik, eta errodaheekin eta prestakuntzekin jarraitzea eragotzi zigun horrek. Behin egoera partzialki kontrolatuta zegoenean, 2020ko uztailan, Mar Targaronak zuzendutako “DOS” filmaren errodahea egin zen, eta, urte bereko abuztuan, zinema-lantegi bat egin zen Oliver Laxerekin. Gobernuak ezarritako segurtasun-neurri guztiak bete ziren jarduera horietan. Ekimen horiek, beste batzuekin batera, zenbait lanpostu sortzen lagundu zuten.
- Estudios Melitón SLk jakin zuenean pizgarri nazionala hobetua izanen zela, eta horrek Nafarroako pizgarriaren lehiakortasun-galera eraginen zuela, ikus-entzunezkoen klusterrarekin harremanetan jarri ginen, informazio hori Nafarroako Ogasunari helaraz zekion. Gure xedea zen Nafarroako pizgarria berraztertua eta hobetua izan zedila, Kanarietan egin zuten bezala, eta azkenean Nafarroan 2025ean egin zen. Lehenagotik adostutako errodaheak galtzea ekarri zuten lehiakortasun-galera horrek, beste erkidego batzuetara eraman baitziren.
- Prestakuntza eta jarduera batzuek dirulaguntzak jaso zituzten, administrazio publikoekiko eta entitate pribatuekiko lankidetzakontratuak edukitzeaz gainera. Pandemiaren zehar lanean aritu ginen, egoerak ahalbidetzen zuten neurrian, eta gero ere jarraitu genuen. Alabaina, ezinezkoa izan zen diru-sarrera errepikariak jasotzeari eustea, pizgarria ez baitzen oso lehiakorra pizgarri nazionalaren aldean.
- Diru-sarrera faltagatik jarraitu ezinean, hartzekodunen konkurtsoa deklaratu behar izan zuten enpresak, eta 2023ko ekainaren 26an likidatu zen. Gerora, prentsaren bidez jakin genuen ezen, zazpi hilabete geroago, 2024ko urtarrilaren 25ean, epaiketa bat egin zela, zeinean Nasuvinsak 20 urteko ustezko errentamendu bati zegokion zenbatekoa erreklamatzeko baitzuen. Hartzekodunen konkurtso horren bidez enpresa likidatu ostean egin zen epaiketa, baina hartzekodunen konkurtso horretan inork ez zuten erreklamaziorik aurkeztu, ezta Nasuvinsak ere.
- Gerora lortu dugun informazioaren arabera, epaiketan kalte-ordainak eskatu zitzaizkion Estudios Melitón SLri 20 urteko alokairuagatik, enpresak eskubidea baitzuen urte horietan alokatzeko; baina errentamendu-kontratuan ez zen jaso errentamendua epe horretan mantendu ezan Nasuvinsari kalte-ordainak emateko betebeharririk.

Adeitasunez, Estudios Melitón SLko bazkide ohia.

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK  
EMANDAKO ERANTZUNA**

Eskerrak ematen dizkiogu Melitón enpresako bazkide ohiari aurkeztutako alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio, eta hori behin betiko gisa ematen da, egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla jotzen delako eta ez dutelako txostenaren edukia aldatzen. Halere, Ganbera honek hau adierazi nahi du:

Azkeneko paragrafoari dagokionez, non azaltzen baita errentamendu-kontratuak ez zuela betebeharririk ezarri errentamendua 20 urte aurreikusietan mantendu ezean Nasuvinsari kalte-ordaina ematekorik, kontratu horren hamabigarren estipulazioan ezartzen zen ezen kontratua suntsiarazteko arrazoi izanen zela errentaren elkarren segidako hiru hileroko ez ordaintzea; eta, gainera, adierazten zen ezen, kasu horretan, betebeharraren urraketak Nasuvinsari ahalmena emanen ziola kontratua suntsiarazteko eta horren arabera kalte-galeren ordaina exijitzeko. Hori horrela, iruditzen zaigu epaia estipulazio horretan oinarritu zela kalte-ordain horren balioespenean finkatutako 565.605 euroak kalkulatzeko.

Iruñean, 2025eko otsailaren 18an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador



